



Zuek Yosu Aldrebes nor dan gunguntako dozue. Fotografi ontantus da go eta ezin antz emon leioke. Or danda dira mutiko zurrak. Baña zoaze marra bakotxari aora emoten-eta...

A. Martzel

# noro ta... PRAILLE?

(DOÑUA: "Markesaren alaba")

"Yosu Aldrebes" naz ni  
bat praille doal-ta  
iru anai gara,  
etxeak ikara.  
Bein argitu bear-ta  
agertu zan, ara:  
Aita, Pasionista  
joan nai dot Euba'ra.

**Aitak:**

Praille sartuko az ba  
alako lekuan?  
Bizimodu oberik  
ba yagok munduan.  
Yosu, aitak esana  
artu eik goguan:  
Prailleak txarto bizi  
dituk komentuan.

**Yosu'k:**

Aita, goguan daukat  
zeuk sarri esana:  
Ondo bizi nai bozu  
joan prailiekana.  
Bear gitxi eginda  
zernai jan-edana...  
Au bai bizimodua  
semeak daukana!

**Amamak:**

Zu ziñan gure poza  
ta praille zoaz, Yosu?  
Aitita ta amamari  
nok emon paa mosu?  
Gure azken larria  
zeuk ekarri dozu.  
Yosu, joan al zoiatz,  
benetan diñozu?

**Yosu'k:**

O aitita ta amama  
ez egin negarrik,  
ez zaituet itxiko  
iñoiz be bakarrik.  
Jaungoikoak emonda  
ba daukat indarrik,  
nire Meza ez da  
izango alperrik.

**Anaiak:**

Amerika'n izan dok  
tre anai Lontxo,  
eta mundua, Yosu  
ederra dok, kontxo...  
Zelan dana itxita  
oa praille motxo?  
Ain lelo ta zoroa  
ez adi izan, txotxo!

**Yosu'k:**

Amerika'ra joanda  
mendi baten artzain,  
ainbeste barik yaukat  
nik bizitzeko lain.  
Emen be biziko nok  
i bestean apain,  
eta gero zerua...  
Zer diñostak orain?

**Osabak:**

Zoratu al yak, Yosu  
illoba maitia,  
nundik bururatu yak  
praille joatia?  
Beti antxe sartuta  
itxirik atia,  
ta jateko bakarrik  
porru-patatia...

**Yosu'k:**

Ez eidazuz alperrik  
jarri ainbat traba,  
jateko bakarrikan  
gizona al da ba?  
Ba dakizu aititak  
zer diñon, osaba?  
Zu lez mutil zar baiño  
praille dala oba".

### Aita-bitxik:

*Ez yuat egin, Yosu  
iregaitik gitxi,  
nun dituk nire diru  
ta ainbeste pitxi?  
Eta beste barik gu  
bertan bera itxi...  
Amesok laga, edo  
agur aita-bitxi!*

### Yosu'k:

*Ez zaitez, aita-bitxi  
jarri asarrian,  
auxe diñotzu Yosu'k  
bertso bakarrian:  
Zeuk euki ninduzun lez  
ni batai-arrian,  
neuk eukika zaitudaz  
zeu Meza Barrian.*

### Yosu'k:

*Alan da, Mari Petra  
edo Petra Mari,  
baiña itxi bakean  
ondo doanari.  
Aita ta ama daukadaz  
nik kontsejulari,  
eta zuk kontsejuak  
emon zeureari.*

### Auzoko mutil zar batek:

*Praille baiño oba dok  
sartu mekanikan,  
ta dirua irabazi  
edert pabrikan.  
Oln etxeko danak  
yagozak pozikan,  
eta euk be ez oztik  
kolko ta patrikan.*

### Eskolako lagunak:

*Yosu, kontuz oindiño  
gaztetxo ago-ta,  
ez al yazak gustatzen  
fubol ta pelota?  
Noizian bein jokatu  
edo tongo bota...  
Ortxe bapo bizi dok  
Iñaki Errota.*

### Yosu'k:

*Zeinbat traba, arrisku  
milla esamesa,  
ondo dakit kolpe au  
ez dala erreza.  
Jaunak beteko al daust  
daukadan amesa:  
Jarraitu dagidala  
emon arte MEZA!*

## euba'ra pasionista

Naparroa, Araba, Gipuzkoa  
ta Bizkai, Euskalerria  
landara barriak gure  
minarioan

### Auzoko Mari Petra'k:

*Begira zelan, Yosu  
dagon gure Martin,  
oba bera lez izan  
arotz edo argin.  
Ementxe izan adi  
zintzo ta beargin,  
mendik be zerura  
tu leikek bardin.*

### Yosu'k:

*Zuk diñozu argin ta  
arek sendagille,  
nekaniku ta arotz  
ta beste bost mille...  
Zuek praille baiño len  
baita txorroskille,  
baiña danen gaiñetik  
Yosu doa praille!*

*Eskolan itxi ditut  
lagunak ugari,  
fubolista ta arotz  
baita pelotari.  
Ni geiago izango nar  
eskerrak Jaunari:  
Laster PASIONISTA  
ta MIXIOLARI!!*

**A. Martze**